


GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko azaroaren 26an aurkeztuko du

Guggenheim Bilbao Bildumako maisulanak

Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako maisulanak

- Komisarioa: Lucía Agirre
- Noiz: 2015eko azaroaren 27tik aurrera

Guggenheim Bilbao Museoa adinez nagusi da dagoeneko eta, horren harira, bere funtsen aukeraketa aurkeztu nahi dugu *Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako maisulanak* erakusketan: XX. mendearen bigarren erdiko arte garaikideko pieza nabarmenak daude ikusgai. Era horretan, programazio artistikoaren ikuspegi berri bati ekin diogu eta, hartara, Bildumako lan adierazgarrienetako batzuk ikusteko espazio finko eta egoki bat edukitzearen gaiari erantzun diogu, besteak beste.

Erakusketa honetako artelan gailenen artean daude: Mark Rothkoren *Titulurik gabea* mihise distiratsua (1952–53); Yves Kleinen *Antropometria urdin handia (ANT 105)* (ca. 1960), artistak bere izenaz patentatutako pigmentu urdin berezia nagusi duena; Andy Warholen *Ehun eta berrogeita hamar Marilyn koloretsu* (1979); Robert Rauschenbergen *Gabarra* serigrafia-mihise handi adierazkorra (1962–63); eta Cy Twomblyren *Komodori buruzko bederatzi gogoeta* (1963). Eduardo Chillida eta Jorge Oteiza euskal maisuek Bigarre Mundu Gerra osteko eskulturaren adibide dira. Horrez gain, beste artelan garrantzitsu batzuk ere badaude, adibidez, Anselm Kiefer eta Gerhard Richter artistenak, edo Julian Schnabel eta Jean-Michel Basquiat estatubatuarrenak.

Aurkezpenean, ikus daiteke, gainera, Francesco Clementeren *Amaren gela* osatzen duen mihise-multzoa (1995-1997), Erdi Aroko zein Errenazimentuko jauregien dekorazioko horma-irudi handiak gogora ekartzen dituena; halaber erakusgai daude 1980ko hamarkadan pinturari berriz heltzeko gogoia (Neespresionismoa eta Transabangoardia mugimenduak adibide) adierazten duten pieza garrantzitsuak, baita adierazkortasun piktorikoa berreskuratzen duten artelanak ere, adibidez, Miquel Barcelóren *Uholdea* (1990).

Ibilaldi bat erakusketan barrena

304. aretoa. Bigarren Mundu Gerra osteko artea

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Europa suntsitua eta zatikatua zela, AEB bihurtu zen erbesteratutako europar artista garrantzitsuen harrerako herrialde nagusia. Testuinguru horretan, pintore- talde batek, askotariko proposamen estetikoaren bitartez, modernotasun plastikoaren etapa erabakigarri bat hasi zuen. Joera horien artean, Estatu Batuetako Espresionismo Abstraktuaren keinuzko pintura nabarmentzen da, dela Ekintzako Pinturaren eredian, Willem de Kooning-en *Villa Borghese* artelanean adierazita (1960), edo “koloreen eremu”en margolariek edo “isiltasunaren margolariek” lantzen duten eredian, adibidez, Mark Rothkoren *Titulurik gabea* (1952–53). Adierazkortasunaren korrante hori sekretuki erabili zen Gerra Hotzean (artistak ere ez zeuden jakinaren gainean) Errealismo Sozialista zurrunari aurka jartzeko.

1953an, Antoni Tàpiesek bere bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Estatu Batuetan, eta Espresionismo Abstraktua gertuagotik ezagutzeko aukera izan zuen. Tàpies bat zetorren mugimendu horrekin Surrealismoari buruz zeukaten interesagatik. *Ambrosia* lanean (1989), artista katalanak murruren gainazala berreskuratzen du, marmol-hautsa eta pigmentuak nahasiz eta, hartara, adierazi nahiez greziarrei hilezkortasuna ematen zien edabea, artelanari izena jartzen diona. Aldi horretan bertan, Yves Klein gaztearen kezka artistikoak loratu ziren. 1954an, Madrilen hasi zen pinturan, *Yves Peintures* liburuxka sortuz; bada, bertan, existitzen ez ziren artelanak aurkeztu zituen, baina bere ibilbiderako abiapuntua izan ziren. Areto honetan, artista horren *Antropometria urdin handia* (ANT 105) ikus dezakegu, 1960 ingurukoa.

301. aretoa. Chillida eta Oteiza

Bi euskal eskultore nabarmendu ziren nazioarteko eszenan 1950eko hamarkadan: Eduardo Chillidak Milango Trienalean Ohorezko Diploma jaso zuen 1954an, eta 1958an, berriz, Veneziako Bienaleko Eskulturaren Saria; bestalde, Jorge Oteizak Milango Trienaleko Ohorezko Diploma eskuratu zuen 1951n, baita São Pauloko Bienaleko Eskulturaren Nazioarteko Saria ere 1957an. Bi eskultoreen hastapenak oso desberdinak izan ziren, baina biek bat egin zuten zenbait proiektu artistikotan, adibidez, Arantzazuko Basilikan eta GAUR taldearen sorreran (Euskal Eskolaren Mugimenduaren barne zegoena).

Oteizaren lana nekez sailka daiteke, eskultura-objektuaren mugak gainditzen baititu eta masaren zein espazioaren inguruan garatutako prozesu esperimetal luze baten emaitza baita. Prozesu hori artelan-multzo edo -serieen bitartez gorpuzten da, kontzeptu jakin baten inguruan sortutakoak. Horien artean ditugu *Azkena ematen duten obrak*, eta hor kokatzen dira *Kutxa hutsak* eta *Kutxa metafisikoak*; horietatik, erakusketa honetan, *Irekidura handia duen kutxa hutsa* (1958) eta *Bi triedroen elkartzeak sortutako kutxa metafisikoa*. *Leonardoren omenez* (1958) aurkezten ditugu. Espazio huts-hutsean hartzaile baterantz (hutsa edo ezereza) egindako bilakaera iragartzen dute, Oteizak Euskal Herriko *cromlech* edo mairu-baratze mikrolitikoekin uztartu zuena.

Eduardo Chillida ere antzinako kulturen eraikuntzekin liluratzen da, eta Euskal Herriaren eta beste herrialde batzuen arteko konexioak egiten ditu. Adibidez, *Izpirituarentzako espazioa* (1995) Indiako harrobietatik metodo tradizionalen bitartez erazutako granito arrosazko pieza da, eta goialdeko zirrikitu kubikoak argiak sartzeko modua ematen du eta, hartara, gaiari (materiari) berezkoa zaion geometria uzten du agerian. Chillidaren iritziz, harriaren indarra espazioa moldatu eta edukitzeko ahalmenean zetzan. Granitoz lan eginez, eskultoreak nahi zuen, mendi batek bezala, arrokak esperientzia arkitektoniko bat eskaintzea.

302. aretoa. Kiefer eta Richter

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Alemania zatikatuan hazitako belaunaldiko kide izaki, Anselm Kiefer-ek zuzenean heldu zion haren historia berri izugarriari, nazionalsozialismoaren mitoei lotutako irudikapenen bitartez; bai eta holokaustotik bizirik ateratako Paul Celan poetaren omenezko artelanen bitartez ere. Kiefer irmo iritzita zegoen memoria dela historiaren traumak asimilatzeke modu bakarra. Bere obran, Kiefer-ek auzitan jartzen du gizakiak kosmosean betetzen duen tokia, eta Alemaniaren historiak, mitologiak, literaturak, identitateak eta arkitekturak elkarrekin dituzten loturak aztertzen ditu. Artista XVII. mendeko Robert Fludd filosofo eta okultista ingelesaren lanaren

eraginpean jartzen da, Fluddek defendatzen baitzuen lurraren errealitate mikrokosmikoak eta zeruaren errealitate makrokosmikoak konexioa dutela elkarrekin. Bada, Kieferrek pieza monumentalak sortzen ditu eta, horietan, bat egiten ditu pintura, collagea eta eskultura, paleta ia monokromo bat eta elementu ez oso ortodoxoak uztartuz, adibidez, beruna, alanbrea, lastoa, igeltsua, buztina, haziak, eguzki-loreak, errautsa eta hautsa, *Gau-ordena ospetsuak* artelanean ikus dezakegun bezala (1997).

Gerhard Richter Bigarren Mundu Gerra baino zertxobait lehenago jaio zen Dresden, Ekialdeko Alemanian kokatuko zen hirian. Luze gabe, artistari interesa piztu zitzaion Berlingo harresiaz bestaldean lantzen ari ziren Informalismoari eta Espresionismoari buruz. Orduan, bere jaiolekua utzi zuen eta, 1961ean, Düsseldorf finkatu zen. Hor, Sigmar Polke, Blinky Palermo eta Konrad Fischer sortzaileekin jarri zen harremanetan. Richter-ek adierazi izan du urte horietan egindako argazkietan oinarritutako pinturak mugari bat izan zirela, berriz ekin ziola bere ibilbideari. Artelaren tipologia horren barrua itsas paisaia seriea landu zuen, eta horkoa da *Itsas paisaia (Seestück, 1998)*. Bertan, ikusmenaren izaeraz gogoeta egiten du.

303. aretoa. 1960ko hamarkada

1960ko hamarkadan XX. mendeko aztoratuenetako bat da kulturaren eta politikaren arloan. AEB gizarte industrializatu bihurtu zen, informazioaren arorako prest, eta ekonomiaren hazkundeak kontsumoaren kultura piztu zuen Atlantikoaz bi aldeetara. Pop Artea britainiar jatorriko mugimendua da, baina estatubatuar pertsonaien bidez heldu zen bere gorenera, adibidez, Andy Warholen bidez. Haren bestaldean kokatzen da Alemaniako Errealismo Kapitalista, Sigmar Polke kide nabarmenen artean duena. Bi korronteak ere egunerokotasunean zentratzen dira, baina asmo desberdinez: interpreta daiteke Pop Artea kritika bat dela, edo herri-kulturaren erakusgarri bat; aldiz, Errealismo Kapitalista dogmatikoagoa da eta kontsumoaren gizartea eta alemaniar “mirari ekonomikoa” gaitzesteari lotzen zaio.

Robert Rauschenberg eta Cy Twombly dira beste bi artista handi eta, 1950eko hamarkadaren erdialderako, euren ikusizko lengoia garatu zuten. 1963an, New Yorkeko Jewish Museum egin zen Rauschenbergi buruzko lehen atzera begirako handia. Bertan, *Gabarra* artelana aurkeztu zen (1962–63), 1960ko hamarkadan hasitako serigrafia-pintura serie dinamikoaren adibide onenetako bat. Urte horretan bertan, Twombly New Yorkera itzuli zen Leo Castelli Galerian *Komodori buruzko bederatzi gogoeta* (1963) aurkezteko, bakarkako mihise-segida batez osatutakoa. Artelan-multzoak narrazio zorabiagarri bat sortzen du eldarnioan eroritako Aurelio Komodo erromatar enperadorearen bizitzari buruz. *Gabarra* eta *Komodori buruzko bederatzi gogoeta* artelanez lehen aldiz jendaurrean aurkeztean kritika gogorak jaso zituzten arren, denboraren joanean, artelan ospetsuak bihurtu dira XX. mendeko artearen historian.

305. aretoa. 1980ko hamarkada: pinturaren itzulera

1980ko hamarkadan, hainbat joerak figurazioari eta adierazkortasunari heldu zioten berriz ere artelanean; horretarako, XX. mende hasierako Espresionismo Alemanaren lengoia formalean oinarritu ziren, eta aurreko bi hamarkadetako Arte Kontzeptualetik eta Minimalismotik urrundu. Miquel Barceló artista mallorcarra da pinturara itzultze-mugimendu horren adierazle nabarmenetako

bat, eta bere artelanetan materiak (gaiak) ematen dio itxura irudiari. *Uholdea* apokaliptikoan (1990), adibidez, paisaia goibel eta malenkoniatsua irudikatu zuen, ebakiak aplikatu eta materia ugari gehitzearen bitartez.

Uholdeak betetzen duen Barcelóren eszenategia modu harmoniatsuan kontra jartzen zaio Anselm Kieferren *Eguzki-ontziaren* (1984–95) testuingurua jartzen duen lur erreari. Antzinako Egipton, egun eta gauaren, bizitza eta heriotzaren arteko bidea egiteko balio zuen ontziari erreferentzia egiten dio. Bi artelan horien lagungarri, Kiefer artistaren bi liburu dauzkagu: *Irudien gatazka* (1980) eta *Gilgamesh eta Enkidu zedro-basoan II* (1981). Liburuok artisau-lan izateak pinturara edo eskulturara hurbiltzen ditu eta, horietan, historiaren geruzak bat datoz orriz orri aplikatutako materia-geruzekin.

Alemaniko Neoespresionismoaren beste handietako bat Georg Baselitz da: bere *Lenin andrea eta urretxindorra* (2008) artelanak Otto Dix-en *Artistaren gurasoak II* (1924) koadroa du inspirazio-iturri, baina Baselitzek azken artelan honetako bi giza irudi nagusien trukean, Lenin eta Stalinen alderantzizko erretratua jartzen ditu, Ekialdeko Alemania bere jaioterriko historiari eta arte alemanaren historiari erreferentzia eginez.

306. aretoa. *Amaren gela*

Francesco Clementeren *Amaren gela* zikloak (1995–97) Errenazimentuko jauregien gela edo *studio*oetako dekoraziorako horma-irudiak ekartzen ditu gogora, eta artistak Museoko 203. gelarako pentsatu zuen. Aldiz, oraingoan, zikloa osatzen duten zortzi panel beste areto batean jarri dira erakusgai eta, hartara, artelanaren beste irakurketa bat egin daiteke.

Artista honen lana Transabangoardian kokatzen da, Achille Bonito Oliva kritikariak 1980 aldera Italian sortutako mugimendua izendatzeko asmatutako hitza. Mugimendu horretan, giza irudia eta material tradizionalak erabiltzen ziren, 1960ko hamarkadaren amaieran eta 1970eko hamarkadan nagusi zen Arte Kontzeptualaren estetikaren aurrez aurre. Clementek tradizio klasikoan, judu-kristauan eta ekialdekoan oinarritutako errepertorio ikonografiko zabal bat erabiltzen du, itxuraldaketa izandako irudiak erakutsiz, maiz lorez jositako atzealdean gainean eta, tarteka, abstrakzio monokromatiko soilen gainean. *Amaren gela*n, oinarritzko elementuen erreferentziak — lurra, ura, sua eta airea— aldamenen dute Indiako kulturatik, erlijioen historiatik, astrologiatik eta egungo zenbait gaitatik datorren sinbolismoa, lan honen lirismoa nabarmentzen duen hondo-oihal baten gainean.

307. aretoa. 1980ko hamarkada Atlantikoaz bi aldeetan

Enzo Cucchi-ren, italiar Transabangoardiaren beste adierazle handietako baten ustez, arteak hondamendi bat behar du lehengo egiturak suntsitzeko eta, gero, artelan baten elementuak manipulatzeko; era horretan, pintura eta eskulturaren artean askatasunez mugitu ahal izango da. *Mendebaldeko gordailua* pieza (1986) haren lanaren adibide garbia da. Denboran zehar egindako bidaiari buruzkoa da, Mundu Berriaren metaforatzat hartua. Italiatik datorren itsasontzi bat Amerikako portu batean dago atrakatura, artelanaren behealdeko zirkulu metalikoak aditzera ematen duenez.

AEBko artean, figuraziora eta adierazkortasunaren itzulerako pertsonaia garrantzitsuenetako bat Julian Schnabel da. Berak askotariko elementuak baliatzen ditu, baita idatzizko hitza ere, hainbat lanen, adibidez, *Fakirrak* (1993) eta *Espainia* (1986) artelanen narrazioak eratzeko. Azken honetan, plater apurtuek zezen-plan bat eta abelgorri baten garezur erraldoi bat marrazten dute. Animalien sakrifizio-errituaren gaia bat dator Miquel Barcelóren *Akerra eta ahuntza* artelanekoarekin (1992), non animalioek, buruz behera eta trazu materikoak dituztela, larrutuak edo immolatuak izateko zorian direla agertzen diren.

Jean-Michel Basquiat bere belaunaldiko pintore ospetsuenetako bat da, eta berak ixten du ibilaldi hau *Napoliko gizona* (1982) eta *Moises eta egiptoarrak* (1982) artelanekin, ezin besteko artelanak baitira 1980ko hamarkadan bere pinturak izandako garapena ulertzeko. *Napoliko gizona* lanean, artistak bere italiar mezenasari zion erresumina ematen da aditzera: *pork merchant* (txerriki-saltzaile) deitzen dio mespretxuz, eta gainazala zirrimarraz, hitzez, ikurrez eta kolorez josita dago, garrasika ari diren ahotsak eta horiei emandako erantzunak diruditela. Errepikapenek, aldaerek, marradurek eta akats ortografikoek graffitia ekartzen digute gogora. Neurritsu eta orekatuago, *Moises eta egiptoarrak* artelanak Bibliako kontakizun bati egiten dio erreferentzia eta, aldi berean, orokorrago begiratuta, Afrikaren historiarekin uztar daiteke.

Programazio artistikoaren ikuspegi berria

Jendeari geure Museoaren Bildumako artelan itzaltsuenak eta aldi baterako erakusketak al bait egokien ikusteko aukera eskaintzearren, Guggenheim Bilbao Museoak gogoeta egin du espazioei buruz, eta horiek urteko programazio artistikoaren askotariko erakusketekin bat ote datozen aztertzeko.

Beraz, proiektu berrien kopurua murriztu gabe eta horien kalitatea abiapuntutzat hartuz, Museoko solairuen leku-antolaketari buruzko gogoetak programazio artistikoaren ikuspegi berri bat eman du. Eredu berri horretan, hirugarren solairuko areto “ez klasikoak” (304, 301, 302 eta 303. arteoak) Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako Maisulanak ia etengabe bertan edukitzeko egokienak direla ikusi da, neurri, forma eta edukieretan askotariko ezaugarriak dauzkaten espazioak direlakoan; ezin hobe datozkie Museoaren fondo garrantzitsuenei. Beraz, hirugarren solairuko galeria klasikoak onenak dira formatu txikiagoko artelanen eta traza “klasikoa”goko gerra aurreko artearen erakustaldietarako, antolatzeko modua dela tarteko. Galeriok Museoaren Bildumarako sarrera-lana egingo dute eta, hartara, hirugarren solairua egungo artearen oinarriari buruzko espazio bihurtuko da.

Bestalde, Museoaren bigarren solairuko espazioetan, garrantzi handiko eta nazioarteko ospea duten aldi baterako erakusketak egongo dira ikusgai. Egun, 2016ko otsailaren 21 arte, solairu honek *Making Afrika – Gaur egungo diseinuaren kontinentea* du erakusgai.

Lehenengo solairuko aretoek, Richard Serra eta Jenny Holzer-en artelanei buruzkoek salbu, egungo joerei helduko diete, gaur egungo artearen adibideak erakutsiz. Atrioaren inguruan, 105. aretoa, 1.000 metro koadro baino gehiago dituela, izaera erakusketa espermentalagoei buruzkoa izango da edo, bestela, Bildumako artelanak egilearen ibilbidearen testuinguruan bertan kokatzeko, edo haren

obraren ezaugarri bereziren bat nabarmentzeko. Egun, espazio honek Alex Katz-en paisaien aukeraketa bat dago, Museoaren Bilduman dagoen egilea ere, *Alex Katz, hemen eta orain*. Bukatzeko, Film & Video, lehenengo solairuan hau ere, bideo-artearen eta bideo-instalazioaren artelan nabarmenei erreparatuko die. Egun (eta azaroaren 22 arte), hauek ditugu erakusgai: *Parallax* (2013), Shahzia Sikander artistarena; ondoren, *Ezagutzen ez denaren hodeia* ekarriko dugu, Ho Tzu Nyen-ena.

Espacio didáctico *Jakingarriak / Descubre / Discover*

Como complemento a la exposición se presentan breves *Descubres* sobre obras y artistas expuestos, que aportan información adicional específica y presentada de manera accesible. Estos *Descubres*, que abarcan cronológicamente todos los periodos de la exposición, corresponden a los artistas Eduardo Chillida, Francesco Clemente, Anselm Kiefer, Jorge Oteiza, Robert Rauschenberg, Mark Rothko y Cy Twombly.

Actividades educativas:

Danza Contemporánea Oskara (Abenduak 17-20, egunean 4 emanaldi, 15 min. bakoitza)

- *Oskara in progress* I 12:00 eta 18:00 h
- *Oskara In progress* II 13:00 eta 19:00 h

Gaur egungo bi dantzari eta koreografo gailenek, Jon Mayak (Kukai) eta Marcos Morau (La Veronal), berariaz sortu dute Oskara proiektua, antzinako euskal cultura omentzeko; Eduardo Chillidaren eta Jorge Oteizaren obran irudikatzen da halaber cultura hori eta haien lanak ikusgai daude Guggenheim Bilbao Bildumako maisulanak erakusketan. Jarduera hau artista egoiliarren programa berri baten emaitza da. Egitaraua beste hiri batzuetako antzokietan ere eskainiko da 2016ko otsailetik aurrera: Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Donostian (Europako Kultur Hiriburu dela eta) eta Baiona. Babeslea: LABORAL Kutxa.

Tokia: Museoko Atrioa. Doakoa Museorako sarrera erosiz gero.

Sortze prozesua – Master Class Danza Oskara (abenduak 16, asteazkena, 19:00–20:00)

Jon Mayak eta Marcos Morauk lan-prozesua azalduko dute. Gaur egungo dantza eta euskal dantza zaleentzat master class bikaina izango da. 13 urtetik gorakoentzat.

Lekua: Museoko Entzungela.

Sarrerak: txarteldegian eta Museoaren webgunean 2€ Lagunak, 4€ publico orokorra

Hausnarketa partekatuak

Museoko profesionalak gidatutako bisitaldi paregabe hauen bidez ezagutu itzazu erakusketaren obra esanguratsuenak, muntaiaren zokoak eta erakusketaren bestelako bitxikeriak.

- Arte arduar arloaren ikuspegia (asteazkena, abenduaren 2an). Lucia Agirre, erakusketaren komisariarekin.
- Funtzezko kontzeptuak (asteazkena, abenduaren 9an). Marta Arzak, Hezkuntza eta Interpretazio Zuzendariordea

Topagunea: Museoko informazio mahaia

Ordua: 18:30

Sarrerak: 2 € Museoaren Lagunak / 3 € publiko orokorra (Museoko sarrera ez dago barne; ezinbestekoa da webgunean erreserba egitea). Talde bakoitzeko 8 pertsona gutxienez.

Aktibitate honek Fundación Vizcaina Agirreren babesa du.

Aretoetako orientatzaileak

Bisitariak aretoetako orientatzaileei galdetu ahal izango diete ikusgai dauden obren inguruan informazio zabalagoa jasotzeko. Museoak, 11:00etatik 14:00etara, dohainik eskaintzen du zerbitzu hau.

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Marketing eta Komunikazio Arloa
Tel. +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es(prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako maisulanak

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.es


Yves Klein (Niza, Frantzia, 1928 – Paris, 1962)

Antropometria urdin handia (ANT 105) [*La grande Anthropométrie bleue (ANT 105)*], ca. 1960

Pigmentua eta erretxina sintetikoa paperean mihise gainean muntatua

280 x 428 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Mark Rothko (Dvinsk, Errusia [gaur egun Daugavpils, Letonia], 1903–New York, AEB, 1970)

Titulurik gabea, 1952–53

Olio pintura mihise gainean

300 x 442,5 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Jorge Oteiza (Orio, Gipuzkoa, 1908–Donostia, 2003)

Bi triedroen elkartzeak sortutako kutxa metafisikoa. Leonardori omenaldia (Caja metafísica por conjunción de dos triedros. Homenaje a Leonardo), 1958

Altzairua

28,5 x 25 x 26, 5 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Anselm Kiefer (Donaueschingen, Alemania, 1945)

Gau-ordena ospetsuak (Die Berühmten Orden der Nacht), 1997

Akrilikoa eta emultsioa mihise gainean

510 x 500 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Gerhard Richter (Dresde, Ekialdeko Alemania, 1932)

Itsas paisaia (Seestück), 1998

Olio-pintura mihise gainean

290 x 290 cm

Guggenheim Bilbao Museoa




Cy Twombly (Lexington, Virginia, AEB, 1928–Erroma, Italia, 2011)

Komodori buruzko bederatziko gogoeta (Nine Discourses on Commodus),

Erroma, 1963

204 x 134 cm



Robert Rauschenberg (Port Arthur, Texas, AEB, 1925–Captiva Island, Florida, AEB, 2008)

Gabarra (Barge), 1962–63

Olio-pintura eta serigrafiatutako tinta mihise gainean

203 x 980 cm

Guggenheim Bilbao Museoa eta Solomon R.

Guggenheim Museum, New York, honako hauek egindako diru-ekarpen osagarriekin: Thomas H. Lee y Ann Tenenbaum; Zuzendariaren Nazioarteko Batzorde eta Batzorde Betearazleko ondorengo kideak: Eli Broad, Elaine Turner Cooper, Ronnie Heyman, J. Tomilson Hill, Dakis Joannou, Barbara Lane, Robert Mnuchin, Peter Norton, Thomas Walther eta Ginny Williams; eta honako hauek egindako diru-ekarpen osagarriekin: Ulla Dreyfus Best; Norma and Joseph Saul Philanthropic Fund; Elizabeth Rea; Eli Broad; Dakis Joannou; Peter Norton; Peter Lawson Johnston; Michael Wettach; Peter Littman; Tiqui Atencio; Bruce eta Janet Karatz; Giulia Ghirardi Pagliai



Andy Warhol (Pittsburgh, Pensilvania, AEB, 1928–New York, AEB, 1987)

Ehun eta berrogeita hamar Marilyn koloretsu (One Hundred and Fifty Multicolored Marylins), 1979

Akrilikoa eta serigrafia mihise gainean

201 x 1.055 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Eduardo Chillida (Donostia, 1924–Donostia, 2002)

Sakona airea da (Lo profundo es el aire), 1996

Alabastroa

94 x 122 x 124 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Miquel Barceló (Felanitx, Mallorca, 1957)

Uholdea (Le Déluge), 1990

Baliabide anitzak mihise gainean

230 x 285 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Georg Baselitz (Deutschbaselitz, Alemania, 1938)

Lenin andrea eta urretxindorra (Mrs. Lenin and the Nightingale), 2008

Jonathan-ek ez daki penizilina aurkitu aurretik pozoindutako zigiluekin

esperimentuak egin zituztela (*Jonathan weiß nicht, daß es schon vor der*

Erfindung des Penicillins Versuche mit vergifteten Briefmarken gab), 2008

Olio-pintura mihise gainean

300 x 250 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Francesco Clemente (Napoli, Italia, 1952)

Amaren gela (*La stanza della madre*), 1995–97

Olio-pintura eta tenpera liho gainean

Hamazazpi panel

8 panel: 239 x 480 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Jean-Michel Basquiat (Brooklyn, New York, AEB, 1960–New York, AEB, 1988)

Napoliko gizona (*Man from Naples*), 1982

Akrilikoa eta collagea zur gainean

122 x 244,5 cm

Guggenheim Bilbao Museoa



Julian Schnabel (Brooklyn, New York, AEB, 1951)

Fakirrak (*Fakires*), 1993

Olio-pintura, erretxina eta kartoia kotoizko oihal gainean

275 x 214 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

Honen dohaintza: Bruno Bischofberger, Zurich,

